



## OINARRIZKO BALIABIDEAK

Guk gure produktua saltzeko, hainbat baliabide ditugu.

Lehenik eta behin **sozietate kooperatiba** bat sortuko dugu, hau da, bazkide bakoitzak jartzen duen **ekarpena** erabiliko dugu enpresaren lehen pausuk emateko. Bakoitzaren ekarpena ez da soilik dirua, ondasunak eta baliabideak ere izan daitezke. Adibidez, 4 bazkideetako batek lokal bat baldin badauka, lokal horrek ekarpen bezala balioko zuen.

Gure enpresen ekarpenekin nahikoa izango ez balitz, Estatu edo Autonomia Erkidegoari **dirulaguntzak** eskatuko genizkieke. Diru laguntzak eskatzerako orduan honako laguntza hau eska dezakegu:

- Enpresen eta entitateen elkarte-egiturak finkatzeko laguntzak 2022an: plangintzan aurre ikusitako gastuen %50 finkatzen du Lan eta Enplegu Sailak

Ekarpenekin eta diru laguntzekin ez badugu gure taberna egiteko beharrezko dirua lortu bankuari **mailegu** bat eskatzera joango gara. Hau egin aurretik argi eduki behar dugu mailegu hori itzuli beharko dugula eta **gainera interesekin**, hau da, eman diguten baino diru kantitate handiagoa itzuli beharko dugu. Honetaz gain, **komisioak kontuan hartu** beharko ditugu. Hauek, bakoitzak bankuarekin hitz egitean eta egoera ikustean adosten dituen maileguaren kantitateak dira. Bakoitzaren diru sarrerak kontuan hartzen dituzte komisioak aukeratzekoan. Baliabide hau erabiltzera **ez iristea gustatuko litzaguke**, mailegua ez soilik bueltatu behar ditugulako baizik eta, interesak eta komisioak bueltatu behar ditugulako. Beraz, ez dugu soilik eman diguten dirua ordaindu behar, **emandakoa baino gehiago ordaindu** beharko genuke hau da, interesak eta komisioak.

**Inbertitzaileak** lortzeko aukera guretzat azkenekoa da, hauek lortzea oso zaila ikusten baitugu. Inbertitzaileak, enpresaren gastuei aurre egiteko dirua aportatzen dute etorkizunean errentagarritasuna lortzeko helburuarekin.